

EUSKALERRIKO TOPONIMOAK GEOGRAFO KLASIKOETAN

Manuel Lekuona

Bat bakarrik aukeratuko degu guk, komentario txiki bat egiteko: gure jaiot-erriarena: OIARTZUN. Gurea dalako, eta gure Oyartzunek, beste erri gutxik bezelako suertea izan dualako gai ortan, orain bi-iru milla urteko Geografoak gure Erriaren izena aipatu izatea. Ez bait dute erri askok olako suerterik.

Iru-lau Geografo aipatuko ditugu: bi ejiptoar (Tolomeo ta Estrabon) eta latino bat (Plinio). Tolomeo Kristo baño zerbait leenagokoa; ta Estrabon Kristo'ren garaikoa; eta Plinio Kristo'ren beraren garaikoa irurok ere naiko zaarrak; bi-iru milla urte.

Bi ejiptoarrak (Tolomeo'k eta Estrabon'ek) gure Erriaren izena *OIASSO* idazten dute: forma nominatiboan; bañan, deklinabidean sartu ezker, bukaerari -N bat artzen duala (*OiassoNis*, *OiassoNi*, *OiassoNem*) gaurko *Oyartzun'en* antza-apur bat geiagorekin... naiz-ta tartean, "Oyartzun"en -R-rik gabe (*Oiasso*)...

Tolomeo'k bi aldiz aipatzen gaitu: biotan Oiasso'ren forman: batean Erriari dagokiola (*Oiasso(n) polin*) eta bestean, Jaizkibel mendiari dagokiola (*Oiasson*, *akron PyrEnEs* = "Oiassn, Pireneo"ren muturra"). Geografo zaar aiek gure Jaizkibel, Pirene Mendi luzearen bukaeratzat jotzen bait zuten: Tarragona'n asi-ta, gure Oyartzun'en bukatzen dan Mendiluzearen moko ta muturra bezela (*Akron PyrEnEs*). Pireneo'ren mutur, moko.

Estrabon'e ere gure Erriaren izena, forma berean ematen du (*Oiasson*, *Oiassona polim*), izenaren tarteko -R- rik gabe.

Nolanai dala, itz orretan, -r-'rik gabe idaztea, ez da, bear bada, ain arritze-ko gauza. Bear bada, gure bi grekoak -Tolomeo'k eta Estrabon'ek- -ss-doble baten bitartez -rs- bat, edo -rz- bat esan nai zuten. Ez dakigu garbi-garbi, zer misterio ezkututzen dan -ss- orren barruan; bear bada, ain zuzen, guk -rs-edo

-rz-rekin esaten degun gauza bera (-ss- = -rs-) -r-ren eta -s-ren artean diran artu-emanen indarrez (ikus *esan*, *erran*; *Arlanzon*, *Aslanzon*; eta *honor*, *honos* latinean)...

Ortik landa, oroiterazi bear degu, Plinio'k bere textuan ez diola *Oiarso*, *Olarso* baizik irakurtze oker batez, seguru asko...

Gañerakoan, Plinio'ren itzak latinez daude. Latin zaarrea. Ez ain konprendi-errezean.

Orrela dio, Geografo-izkuntza eskematiko batean:

“Proxima ora Citerioris est, eiusdenque Tarraconensis situs, a Pyreneo per Oceanum, *Vasconum saltus*. *Olarso*’:

Eta, ikusten danez, Tarragona'tik asi-ta, gure Oyartzun arteko bidea ikutzen du, iru izen aipatuaz:

“Tarraconensis (situs)
a Pyreneo
eta per Oceanum.

Bide luzea, itz gutxitan sintetizatua; bañan guretzat, batez ere, bukaerako *OLARSO* orrekin ornitua, aurretik *VASCONUM SALTUS* eder bat duala.

Vasconum saltus eta Olarso oiek “bereiz” irakurriaz... ez leen, oraindik berriro, irakurtzen ziran bezela: biok bat egiñaz alegia, “saltus” ori, ondotiko “oiar” hitzaren anplifikamen eta etimolozia bait-litzan. Gaur ordea piok bereiz irakurtzen bait dira... Geografi-lekzio polit bat...

Itz geiagotan bide bera —Tarrako-Oiassona— Estrabon'ek markatzen du:

“Ek TarrakOnes (1) epi tous schatous epi to OkeanO OuaskOnas tous kata PampelOna kai tEm ep'autO OkeanO OIASSONA polin”.

Arritzeko gauza da, bai Plinio'k, bai Estrabon'ek OuaskOnak, biok berdin kalifikatzea: ots! “auzo” bezela (“ora PROXIMA” bait dio Plinio'k, eta SCHATOUS OuaskOnas” Estrabon'ek; eta biok “auzo” esan nai dute) biok iturri beretik edaten ari dirala, señale... batek *Olarso*, ta besteak *Oiasso* badiote ere.

Arritzekoa da baita Estrabon'ek errenkada labur batean adberbio “epi” iru aldiz erabiltzea, esan nai duana obeto, detallatu bearrez, bañan denbora berean gauza illun-arrazkoan ipiñiaz, besteak beste.

(1) O mayúscula pro OMEGA.

(2) E mayúscula, pro Eta (e longa duplex).

Guk “epi”-illara ori, onela euskeratu degu:

“Tarragona’tik asita, *an-inguruan zear*

Panplona-aldeko Ouaskon auzoen *artean zear*

Okeanoaren *gain-aldean zear*

OIASSON Erria,

Okeanoaren beraren *gain-aldean zear* bait dago”.

“Epi” orrek, beti ere, egoera gain-antza’esan nai bait du.

Bukatzeko, Plinio’rengana bihurturik, ikutu dezagun VASCONUM SALTUS dalako zerbait ori. Zein baso da Geografo latinoak or aipatzen duan baso sonatu ori?

Kontextoak izen bat ipintzen digu garbi-garbi: “Olarso”, ots! Oyartzun. Oyartzun’en auzo dan Vaskonen basoa bear du izan...

Guretzat, guk Oyartzun’en “Urumea-Erreka” esaten diogun ingurumariko baso mardula: Bianditz-Artikutzatik asita, Iraurgi-Añarbe’n barrena, Goizueta eta Arano’n bukatzen dan baso ederra. Beren iturri eta errekaak “Urumea-Erreka” aundira ixurtzen dituzten mendi ta basoak; Plinio’ren “Vasconum saltus” dalako lurralde historietakoa... Guk Oyartzun’en “Urumea-Erreka” esaten dioguna.